
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



EUSKADIKO EGOERA SOZIOLABORALA

I. SEIHILEKOA 2019

2019ko urtarrila-ekaina aldiari dagokion lehenengo sei hilekoko txosten hau Lan Harremanen Kontseiluaren informazio sozioraboreko planaren barruan sartzen da, eta helburutzat du EAEko egoera sozioraboreala ikuspegi eta xehetasun handiagor aztertzea, betiere funtsezko ardatz gisa enplegua eta negoziazio kolektiboa hartuta.

2019ko iraila

1. JARDUERA EKONOMIKOAREN BILAKAERA.....	4
2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA, GATAZKAKORTASUNA ETA ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK	6
3. ENPLEGUA ETA KONTRATAZIOA.....	19


1. JARDUERA EKONOMIKOAREN BILAKAERA

Eustaten hiruhileko kontuen aurrerapenaren arabera, %2,3koa izango da 2019ko bigarren hiruhilekoko EAEko BPGaren urte arteko hazkundera (aurreko hiruhilekoko berbera). Euskal ekonomia 2014az geroztik erritmo onean hazten ari bada ere, azken hiruhilekoetan jaitsiera txiki bat nabaritzen da bere hazkunde-tasan, %2tik gorakoa izaten jarraitzen badu ere.

Lanaldi osoko lanpostu baliokideen arabera neurtutako enplegua urte arteko %1,7ko hazkundera izan zuen seihilekoan. Bestalde, Gizarte Segurantzarako batez besteko afiliazioa ekainean (hileko batezbestekoa) %2,1 hazi zen iazko aldi berarekin alderatuta.

Jarduera industrialari dagokionez (produkzio-indizearen bidez neurtutakoa), urte arteko %0,7ko hazkundera izan zuen urteko lehen sei hilabeteetan. Ondasunen zertarako ekonomikoa kontuan izanda, eta 2018ko lehen seihilekoarekin alderatuta, kontsumorako ondasunen produkzioa %3,9 handitu zen, energiaren produkzioa %1,3, eta ekipamenduko ondasunena %0,6; tarteko ondasunen produkzioa, ostera, bere horretan geratu zen (%0,0).

1. GRAFIKOA
BPG-AREN BILAKAERA



Iturria: Eustat (Kontu Ekonomikoak), Eusko Jaurlaritza.

Prezioei dagokienez, gure Erkidegoari dagokion KPI orokorraren hazkunde-erritmoa apalduz joan da urteak aurrera egin ahala, eta urtarrileko %1etik eta apirileko %1,7tik ekaineko %0,8ra igaro da. Produktu energetikoen efektua alde batera uzten badugu, prezioen urte arteko aldakuntza ekainean %0,9koa izan da.

Soldata Kostu Osoa EAEn 2019ko lehen hiruhilekoan %1,5 hazi zen aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, izan ere, 2018an %2,4ko batez besteko igoera¹ izan zuen. Soldaten kostua eta soldatapeko biztanleria aldi berean hazteak zera esan nahi du, ekonomiaren hobekuntza oro har soldatetan ere antzematen hasi dela.

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren martxoko aurreikuspenen arabera, BPGa %2,3 haziko da 2019 osoan, eta %2, aldiz, 2020an. Era berean, enplegua 2019an %1,7 eta 2020an %1,3 haztea aurreikusten da.

Espainiako ekonomiarentzat, zeinak aurtengo ekitaldiko bigarren hiruhilekoan urte arteko %2,3ko hazkundera izan zuen Estatistika Institutu Nazionalaren aurrerapenaren arabera, Espainiako Bankuak BPGaren %2,4ko zabalkundera aurreikusten du 2019rako, eta %1,9koa, aldiz, 2020rako.

Nazioartean, Estatu Batuen eta Txinaren arteko tentsio komertzialek eta akordiorik gabeko Brexit baten aukerak, besteak beste, akaso kalte egingo diote hazkunderari, izan ere, jada Europako ekonomia nagusietako batzuetan ahulezia-zantzuak antzeman dira; gainera, ez dago esaterik zehazki noiz hasiko diren banku zentralak moneta-pizgarriak kentzen, hain zuzen ere finantza-krisia lehertu zenean martxan jarri ziren horiek.


¹ ETCL (Laneko Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta). Euskal Autonomia Erkidegoa. Soldata Kostu Osoa (2018ko 4 hiruhilekoen batezbestekoa) hazi egin da, aurreko urtearekin alderatuta.

2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA, GATAZKAKORTASUNA ETA ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

2.1- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA

2019ko lehen seihilekoa amaitzean, langileen %41,4k eguneratuta zeuzkaten beren hitzarmenak (indarraldi betean), %40,7k luzatuta zituzten beren akordioak, eta langileen %17,9k, aldiz, indargabetuta zeuzkaten beren hitzarmenak. Aldiz, hitzarmenak eguneratuta (indarraldi arruntean ekitaldiaren hasieran, eta urtean berrituta) zituzten langileen portzentajea azken bost urteetako altuena zen, 2014ko lehen seihilekoan lortutakoa baino beheraxeago.



² 2016 urtea: atzeraeraginezko efektuarekin urtarilaren leian eguneratutako datuak, Bizkaiko Merkataritza Orokorreko Hitzarmen Kolektiboa erregistratu eta gero.


Indarrean diren hitzarmenak: Hitzarmen hauek euren negoziatzaileek adostutako ohiko aplikazio-eremuaren barruan daude.

Indarraldia luzatutako hitzarmenak: Behin ohiko aplikazio-epea pasatuta, hitzarmen hauek luzatuta edo aurreraeraginean daude.

Iraungitako hitzarmenak: Behin salatuta edo aurreraeragineko epea (legezkoa edo konbentzionala) igarota, hitzarmen hauek indargabetuta daude, eta ez dago euren eremu funtzionalari eragiten dion goragoko eremuko hitzarmenik.

Dena dela, azpimarratu beharra dago egungo egoera posible dela 2018. urtean hainbat akordio lortu zirelako, akordioi esker baitzuten 2019aren hasieran bere hitzarmena berrituta soldatapeko biztanleen %34,2k; aldiz, biztanleria landunaren %7,2k baino ez ditu bere hitzarmenak berritu urte honen lehen sei hilabeteetan.

3. GRAFIKOA
EAE-KO LANGILEEN BANAKETA,
SEKTOREKO/ENPRESAKO HITZARMENAREN INDARRALDIAREN ARABERA



Lan-baldintzak berrituta dituzten langileen portzentajea igotzearen erantzule dira, azken batean, pasa den urtean EAEn negoziatu eta sinatutako hitzarmenak, horiek indarrean jarraitzen baitute 2019an. Izan ere, enpresen eremuan egoera pasa den urtekoaren antzekoa da.


Negoiazio sektorialaren aurrerapen horri esker, posible izan da, halaber, egoera EAE/Estatua lurralde-eremuen arabera aztertzean, ikustea EAEn egoera hobe dela; EAEn negoziatutako hitzarmenak indarrean dituzten langileen portzentajea 8,6 puntu gorago dago pasa den urteko lehen seihilekoko baino (%37,6koa 2019an, eta %29koa 2018an).

EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenei dagokienez, adierazi beharra dago egoerak okerrera egin duela 2019ko lehen seihilekoan, aurreko urtearekin alderatuta; hitzarmenak eguneratuta dituzten langileak %51,2 dira, eta %61,1 ziren 2018ko ekainean.

Halaber, gure Erkidegoan eragina duen estatu-mailako negoziarioari egotzi behar zaio neurri handi baten aurten langile gehiagok izatea gurean euren hitzarmenak iraungita.






Urtearen hasieran Ingeniaritza Enpresen eta Ikerketa Teknikoetarako Bulegoen Hitzarmena iraungi izanak 16.000 langile baino gehiagori eragin zien, eta horrek eragin du neurri handi batean EAEn hitzarmenak iraungita dituzten langileen kopurua hazi izana; langile guztien %15,3 ziren 2018ko ekainean, eta %17,9 dira 2019an.

4. GRAFIKOA
EAE-KO LANGILEEN BANAKETA,
EAE-KO/ESTATUKO HITZARMENAREN INDARRALDIAREN ARABERA



Lurralde eremu guztien bilakaera aztertzen badugu ekitaldiaren hasieratik, egiaztatuko dugu lehenengo sei hilabete hauetan lurralde arteko eremuan izan dela aurrerapen erlatiborik handiena, eremu horretan beren hitzarmenak indarrean dituzten langileen portzentajea %24,3ra arte hazi baita.

5. GRAFIKOA
2019KO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA EAE-N,
LURRALDE EREMUEK ARABERA



2019/01/01eko datuak

2019/06/30eko datuak

- Hitzarmena luzatuta eta babesteko goragoko eremuko beste hitzarmenik ez duten langileen portzentajea
- 2019an hitzarmena luzatuta eta berritzeko zain duten langileen portzentajea
- Hitzarmena indarrean duten langileen portzentajea

Batetik, hitzarmen kolektiboa sinatu dutelako Hezkuntza Sailaren baitakoak diren kudeaketa zuzeneko eskola-jantokietako kolektibitateetako enpresek (ia 5.000 langilek dihardute bertan), eta bestetik, lan-baldintzak eguneratu dizkietelako 2019rako Osakidetzako garbiketa-zerbitzuetako enpresa emakidadunen 2.700 langileei, eremu honetako langileen ia %25ek du dagokion hitzarmena. Lurralde arteko eremuko gainerako hitzarmenak luzatuta daude, eta ez dago iraungitako hitzarmenik eremu honetan.

Arabako lurralde historikoari dagokionez, eguneratutako hitzarmenak dituzten langileak urtearen hasieran %49,2 izatetik ekainaren amaierarako %54,2 izatera igaro dira, eta tarte horretan, gainera, zeinbat enpresa-hitzarmen sinatu dira, baita sektoreko hitzarmen bi ere: Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuarena eta Altzariaren Merkataritzarena, hurrenez hurren 463 eta 244 pertsona hartzen dituztenak eraginpean.


Bizkaiko lurralde historikoan, eguneratutako hitzarmenak dituztenak %41 izatetik %48,4 izatera pasa dira, eta, langilekopuruari erreparatuta, hitzarmen eguneratu horietatik garrantzitsuenak hauexek izan dira: Salgaien Errepideko Garraioko sektoreko hitzarmena, 5.292 langilerekin, eta Lantegi Batuak Fundaziokoa, ia 2.300 langilerekin.

Gipuzkoako lurralde historikoari dagokionez, beren hitzarmenak indarrean dituzten langileak ekitaldiaren hasieran %15,7 izatetik lehen seihilekoa amaitzean %19 izatera igaro dira, eta 2019an erregistratutako hitzarmen guztiak enpresa-hitzarmenak izan dira; garrantzitsuena, Gureak Lanean S.A. enpresakoa, eraginpeko langileen kopuruagatik (ia 2.500 langile).

EAEen eragina duten estatu-mailako hitzarmenei dagokienez, beren hitzarmenak eguneratuta dituzten langileak %43,3 izatetik %51,2 izatera igaro dira, eta nabarmentzekoak dira honako hauek, haien eraginpean diren pertsonen kopuruagatik: Hondakinen Berreskurapen eta Birziklapeneko Sektoreko hitzarmena, ia 2.000 langilerekin, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Arretakoa, 1.918 langilerekin, eta Talde Handientzako Otorduetakoa, ia 1.400 langilerekin.

6. GRAFIKOA
% SOLDATA IGOERA EAE-N/ESTATUAN, INДАРРЕКО HITZARMENETAN

Urteko metatua hiruhileko bakoitzeko azken hilean



Itundutako soldata-hazkundeari dagokionez, %1,91ra iritsi zen gure erkidegoan indarreko diren hitzarmenetarako, Estatu osoan indarrean diren hitzarmenetarako itundutakoaren (%2,2) azpitik.

Eremu funtzionalei dagokienez, enpresa-eremuko soldata-igoera (%1,78) sektoreko hitzarmenetan erregistratutakoa baino txikiagoa da, %1,96an baitago azken hori.

2019an erregistratutako hitzarmenetan jasotako soldata-igoerari dagokionez, %2,17ra iristen da EAEn, eta berriz ere handiagoak dira sektoreko hitzarmenetan jasotako igoerak enpresa hitzarmenetan bildutakoak baino (%2,5 eta %1,57, hurrenez hurren).

Edozein kasutan ere, azpimarratu beharra dago igoera hauek EAEko ekaineko urte arteko inflaziotik (%0,8) gora daudela, baita lehen seihilekoaren batezbestekotik³ (%1,2) gora ere.

³ Urte osoan metatutako batezbesteko inflazioa, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

2.2- EAEn HITZARMEN KOLEKTIBOAK EZ APLIKATZEA⁴

Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan⁵ eskuragarri dagoen informazioaren arabera, EAEn 2019ko lehenengo seihilekoan hitzarmen kolektiboen 7 ez-aplikatze jaso ziren, 45 langile eraginpean hartuta guztira.

2019arekin alderatuta, nabarmen gutxiago dira aurkeztutako ez-aplikatzeak (-%46,1) eta eraginpeko langileak (-%86,4), izan ere, aurreko urteko lehen seihilekoan, guztira 13 ez-aplikatze izan ziren, 331 langileri eragin zietenak.

Dena dela, Estatu osoa hartuta, areagotu egin zen ez-aplikatzeen kopurua zein eraginpeko langileen kopurua, 2018ko lehenengo seihilekoan izandako 583 ez-aplikatzeetatik 2019ko aldi berean izandako 662 ez-aplikatzeetara igarota (+%13,6), eta eraginpeko langileak 10.631 izatetik 12.454 izatera pasa ziren igarota (+%17,1).

Sei hilabete hauetan EAeko Lan Agintaritzan sartutako ez-aplikatze guztiak alderdien arteko akordioarekin sartu ziren. Ez-aplikatze horien arteko 6tan kontsultaldian lortu zen akordio hori, eta haien arteko batean, aldiz, hitzarmenaren batzorde paritarioan lortu zen akordio hori.

Aplikatu gabe geratzen den gaiari dagokionez, aurreko urteetan bezala, soldata-zenbatekoa egon zen ez-aplikatze gehienen erdian.


Izan ere, baten izan ezik, ez-aplikatze guztietan ageri zen soldata-zenbatekoa, guztira 35 langile eraginpean hartuta. Lan-jardunaldia eta ordainketa-sistemari lotutako beste gai batzuk egon ziren beste ez-aplikatzearen erdian, 10 langile eraginpean hartuta.

Adierazi behar da lehenengo sei hilabete hauetan ez-aplikatze eskaera bakar bat ere ez zela iritsi ORPRICCE Estatutuaren araberrako Hitzarmen Kolektiboak Ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organora.

⁴ 2012an ezarritako lan-erreformak aukera ematen die EAeko enpresei, kausa ekonomiko, tekniko, antolakuntzako edo produktioako gertatzen direnean, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan aurreikusitako lan-baldintza jakinak ez aplikatzeko, enpresa eta langileen ordezkariek ados jarriz gero. Desadostasunik badago, desadostasuna hitzarmenaren batzordearen iritzipean jar liteke. Batzorde honek esku hartu ezean edo akordiorik lortu ez badu, alderdiek Precora jo beharko dute. Precon ere desadostasuna ebatzi ez badute, alderdietako edozeinek ORPRICCEren iritzipean jarri ahal izango du; horren egoitza LHKn dago.

⁵ <http://explotacion.mtin.gob.es/regcon/pv/index.htm>

Estatu osoa hartuta, ez-aplikatzeen %89,8an alderdien arteko akordio batera iritsi zen kontsultaldian, ez-aplikatzeen %8an akordio batera iritsi zen hitzarmenaren batzorde paritarioan, eta ez-aplikatzeen %2an, aldiz, bitariko organo baten bitartekotzaren edo laudoaren bidez lortu zen akordio hori, eta 2 ez-aplikatze soilik (guztizkoaren %0,2) izan ziren hiru aldeko organo baten barruan hartutako erabakiaren ondorio.



Soldata-zenbatekoa soil-soilik edo beste kontzeptu batzuekin batera ez-aplikatzearen eragile izan zen Estatuan sartutako ez-aplikatzeen %66,2, eta langileen %53,7 izan ziren horren eraginpean.

Zerbitzuen sektorea dago honetan lehen postuan, 3 ez-aplikatze eta eraginpeko 22 langilerekin, eta atzetik du eraikuntza-sektorea, 3 ez-aplikatze eta eraginpeko 21 langilerekin. Azken tokian industriaren sektorea dago, ez-aplikatze bat eta eraginpeko 2 langilerekin.

Urtero ez-aplikatzeek eraginpean hartutako langileen kopurua txikituz joan da 2015 urteaz geroztik, 2018an salbu, urte horretan Vidriera y Cristalería de Lamiaco S.A. enpresak ez-aplikatzea aurkeztu baitzuen, 238 langileko plantillarekin, eta, horren ondorioz neurri handi baten, ez-aplikatzeen eraginpeko langileen kopuruak gora egin zuen.

Estatu osoari dagokionez, urte batzuetan ez-aplikatzeen kopuruak behera egin eta gero, 2019ko lehen seihilekoan eta igo egin dira bai ez-aplikatzeak, bai eraginpeko langileak, aurreko urtearekin alderatuta %13,6 eta %17,1 hazita, hurrenez hurren.

GATAZKAKORTASUNA ETA ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK


2.3- GREBAK

Lehenengo eta behin, adierazi beharra dago txosten hau egiteko orduan eskura izan ditugula soilik gure Erkidegoan 2019ko urtarrilean, otsailean eta martxoan egindako greben datuak; beraz, egin ditugun alderaketetan aurreko ekitaldietako lehen hiruhilekoei dagozkien datuei erreparatu diegu.

Horrela, 2019ko urtarrila-martxoan aldirian greben kopurua haiz egin zen EAEn, baina bai eraginpeko langileen kopurua, bai lan egin gabeko jardunaldiena nabarmen murriztu ziren aurreko urtekoekin alderatuta.

Horrela, bada, 2019ko lehen hiruhilekoko datuak eta 2018ko lehen hiruhilekokoak alderatuta, zera egiaztatzen dugu, greba-kopurua %37 hazi zela, baina eraginpeko langileen kopurua eta lan egin gabeko jardunaldiena, ostera, murriztu egin zirela, %70,9 eta %16,1, hurrenez hurren.

8. GRAFIKOA
GREBEN, ERAGINPEKO LANGILEEN ETA LAN EGIN GABEKO EGUNEN KOPURUA



Iturria: Lan eta Justizia Saila. Eusko Jaurlaritza

Jarduera sektoreen arabera, zerbitzuen sektorea izan zen eragin handiena jasan zuena, greben %71,4, parte-hartzaileen %75,9 eta lan egin gabeko lanaldien %86,2 sektore horretan izan baitziren, eta hezkuntza-sektorean izandako gatazka bat

da aipatzekoa, hain zuzen ere, gizarte-ekimeneko irakaskuntza-zentroena, hirugarren sektorean galdutako lanaldien guztizkoaren %68 hartu baitzuen gatazka horrek.

Beste gatazka bat ere izan zen 2018ko lehen hiruhilekoan hezkuntza-sektorean, irakaskuntza publiko ez-unibertsitarioarena, izan ere, pertsona askori eragin zien eta lan egin gabeko jardunaldi asko eragin baitzituen. Dela greba hau, dela Bizkaiko bulego eta despatxuen gatazka, dela oro har enpresa-arloan izan zen gatazkakortasun handia, iaz nabarmen egin zuten gora lan egin gabeko jardunaldiek.

Bigarren lekua 2019an industriarena izan zen, greben %27,1ekin, eraginpeko langileen %23,8arekin eta galdutako lanaldien %13,8arekin; eraikuntzaren sektorean, aldiz, grebak guztizkoaren %1,4 besterik ez ziren izan, eraginpeko langileen guztizkoaren %0,3 eta lan egin gabeko lanaldien guztizkoaren %0,02. Hiru hilabete hauetan, aspaldion ohikoa denez, ez da gatazkarik izan nekazaritza-sektorean.


Nahiz eta azken urteetan pixkanaka-pixkanaka gora egin duen greben ondoriozko gatazkakortasunak, azpimarratu beharra dago nabarmen murriztu dela aurreko urtearekin alderatuta, 2018aren aurreko ekitaldietako mailara heldu ez bada ere.

Izan ere, 2019ko lehen hiruhilekoan, lan egin gabeko lanaldi gehienak negoziazio kolektiboko prozesutik eratorritako gatazkek eragin zituzten (%88,5), %4,8 enpresen antolamenduak, lan-sistemak edo berregituratzeak eragindako gatazken ondorioz izan ziren, eta lan egin gabeko lanaldien %6,3 ez zuen lotura zuzenik izan negoziazio kolektiboko prozesuarekin.

2.4- PRECON AURKEZTUTAKO GATAZKAK

Bere hiru lurralde zerbitzuen bitartez kudeatzen du Lan Harremanen Kontseiluak Preco deitutakoa, hau da, Lan Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide arteko Akordioa. 2000ko otsailaren 16an (66. zenbakiko EHAA, 2000ko apirilaren 4koa), Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari-tzarik handieneko sindikatu eta enpresa konfederazio guztiek sinatu zuten akordio hori.

9. GRAFIKOA
PRECON AURKEZTUTAKO GATAZKEN
ETA ERAGINPEKO LANGILEEN KOPURUA



Iturria: Lan eta Justizia Saila. Eusko Jaurlaritza

Bada, 2019ko lehen seihilekoan 268 eskaera aurkeztu ziren Precon, aurreko urteko aldi berean baino bat gehiago, eta 54.650 langile izan ziren guztira haien eraginpean (2018an, 78.817). Hau da, aurreko urtean baino %0,4 eskaera gehiago aurkeztu ziren, baina -%30,7 langile gutxiago izan ziren haien eraginpean.

2019ko urtarrila-ekaina aldian amaitutako gatazkei dagokienez, abenikoen ehunekoa gatazken %24,2ra iritsi da (%23,9koa zen aurreko urteko lehen seihilekoan), langileen %15,5 eraginpean hartuta (%19,6 ziren 2018an).

Azpimarratzeko moduko kontua da, gatazka kolektiboak direla eta, 2019ko lehen seihilekoan gehiago izan direla alde biek hala eskatuta kontziliazio-, bitartekaritza- edo arbitraje-prozedurak erabili diren gatazkak; prozedura horietan Lan Harremanen Kontseiluaren elkargoko profesionalak parte hartu dute.


Izan ere, aipatutako 2019ko lehen seihileko horretan, 14 gatazkatan erabili da kontziliazio-prozedura (horietako 8 sindikatuko afiliazioari lotutako prozedura bereziak izan dira), eta 3 bitartekaritza-prozedura eta arbitraje-prozedura bat jarri dira abian.

Guztira, beraz, 18 prozedura izan dira, eta 2018ko aldi berean 10 prozedura jarri ziren abian profesionalen parte-hartzearekin.

2.5- ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK


2019ko lehen sei hilekoan, euskal administrazioari jakinarazitako enplegu-erregulazioko espedienteek murrizketa handi bat izan zuten (-%20,6), baina eraginpean hartutako langileei erreparatuta murrizketa -%6,7koa baino ez zen izan.

Oro har, azken urteetan eta egoera ekonomikoaren hobekuntzarekin batera, jaitsiera handia ikusten da enplegu-erregulazioko espedienteetan zein eraginpeko langileetan, baina adierazi beharra dago eraginpeko langileen murrizketa 2019an ez dela izan aurreko urteetan bezain handia.



Eraginpeko langileen kopuruak behera egin badu ere, etendako espedienteek eraginpean hartutako langileen kopurua %-68,5ean murriztu zen, eta euren lanean suntsitutako espedienteek eraginpean hartutakoak %-33,8 gutxiago ziren.

11. GRAFIKOA
ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK EAE-N,
ETA ERAGINPEKO LANGILEAK



Iturria: Lan eta Justizia Saila. Eusko Jaurlaritza

Langileak sektoreen arabera aztertzen baditugu, industrian biltzen dira oraindik ere gehienak 2019ko lehenengo sei hilekoan, 863 pertsonarekin (guztizkoaren %75,1); atzetik datoz zerbitzuak, 260 pertsonarekin (%22,6); eta ondoren, eraikuntza, 26 pertsonarekin, %2,3.

Espedientea aurkezteko arrazoiari dagokionez, lehenengo sei hilekoan eraginpean hartutako 10 langiletatik 9 arrazoi ekonomikoengatik izan ziren, eta horixe izan zen, aurreko urtean bezala, Enplegu Erregulazioko Espediente bat aurkezteko arrazoi nagusia.

3. ENPLEGUA ETA KONTRATAZIOA

Atal honetan enpleguaren bilakaera aztertzen da, batez ere jakinarazitako kontratazioaren eta Gizarte Segurantzarako afiliazioaren bidez.

Era berean, erregistratutako langabeziaren bilakaera eta Jarduerarekiko Biztanleriaren Inkestaren emaitza nagusiak aztertzen dira.

3.1- JAKINARAZITAKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA


2019ko lehenengo seihilekoan, EAEn enplegu-zerbitzuei jakinarazitako kontratuen kopurua %-0,2 murriztu zen iazko aldi berarekin alderatuta, aldi baterako kontratazioa %0,5 hazi da, eta kontratazio mugagabea %-7,3 murriztu.

1. KOADROA					
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUEN KOPURUA, KONTRATU MOTAREN ARABERA					
	I. SEIHILEKOA 2018	BANAKETA I. SEI. 2018	I. SEIHILEKOA 2019	BANAKETA I. SEI. 2019	URTETIK URTERAKO ALDAKUNTZA
Jakinarazitako kontratuak	488.716	%100,0	487.565	%100,0	%-0,2
Mugagabeak	45.335	%9,3	42.030	%8,6	%-7,3
Aldi baterakoak	443.381	%90,7	445.535	%91,4	%0,5

Iturria: SEPE.

Jakinarazitako kontratazioaren leundutako urte arteko hazkunde-tasen analisiak (ikus grafikoa) erakusten duenez, 2013tik aurrera eta 2015. urtearen hasierara arte igoera handia gertatu zen izenpetutako kontratuen kopuruan, eta apaldu egin zen orduz geroztik haien hazkunde-erritmoa; urte arteko hazkundera txikiagoa da, batez ere azken urteetan, aurrez aipatu den aldikoa baino.

2018ko lehen seihilekoan gertatu zen goranzko aldaketak ez du jarraipenik izan, izan ere, jakinarazitako kontratazioaren hazkunde-erritmoa mantsotuz joan da hurrengo seihilekoetan, eta 2019ko urtarriletik ekainera bitartean ere jaitsieratxo izan du (%-0,2).




Akaso lehen seihilekoan sinatutako kontratu mugagabeetan izandako jaitsiera horrekin zerikusia du ekintzaileen aldeko kontratu mugagabea desagertu izanak, kontratu horrek urtebeteko probaldia zuen eta; kontratu-mota hori gure azterketatik aparte utzita, egiaztatu dugu gainerako kontratu mugagabeak %7,9 hazi direla aurreko urtearen aldean (41.696 dira 2019an, eta 38.595 ziren 2018an).

⁶ Tasa leunduak erabiltzen direnez, ausazko gorabeherak partzialki ezabatzen dira eta joeratik kanpoko datuak baztertu egiten dira; hartara, joeraren noranzkoa hobeto zehatz daiteke.

13. GRAFIKOA

EAE. EKINTZAILEEN ALDEKO KONTRATU MUGAGABEEN KOPURUA, ETA SINATUTAKO GAINERAKO KONTRATU MUGAGABEAK URTEAREN ARABERA



Lanaldi-motaren arabera, 2019ko lehen seihilekoan apenas egon zen aldaketarik aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Jardunaldi osorako kontratazioa %-0,1 murriztu zen, eta jardunaldi partzialeko kontratazioak, aldiz, egonkor eutsi zion, %0ko hazkundearekin.

Gorabehera handienak gertatu ziren aldizkako kontratu finkoetan, %40,8 hazi baitziren 2018ko lehen seihilekoarekin alderatuta, eta praktiketako eta prestakuntzako kontratuetan, %-23,5 murriztu baitziren; baina aintzat hartu behar da kontratu-mota horiek jakinarazitako kontratazioaren guztizkoaren %1,1 baino ez direla.

Sexuen arabera, lehenengo seihilekoan, jakinarazitako kontratazioa murriztu egin zen emakumezkoen artean (%-0,6), eta gizonezkoen artean, aldiz, %0,2ko hazkunde txikia izan zuen. Gainera, aurreko urteetan gertatu zen bezala, emakumeek sinatu zituzten lanaldi partzialeko kontratu gehienak (%66,6), eta gizonek dauzkate oraindik ere lanaldi osoko kontratu gehienak (%61,7).

Azpimarratu beharra dago, aurreko urtean bezala, sinatutako hamar kontratutatik lau lanaldi partzialekoak direla, eta sinatutako kontratu gehienak aldi baterako direla (%91,4), jakinarazitako kontratazio osoan duten pisua ehunekotan 0,7 puntu areagotu bada ere aurreko urtekoarekin alderatuta.

2. KOADROA
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUEN KOPURUA,
LANALDI MOTAREN ARABERA

	I. SEIHILEKOA 2018	I. SEIHILEKOA 2019	URTEK URTERAKO ALDAKUNTZA
JAKINARAZITAKO KONTRATUAK	488.716	487.565	%-0,2
Lanaldi osokoak guztira	289.599	289.242	%-0,1
Lanaldi partzialekoak guztira	192.795	192.815	%0,0
Aldizkako finakoak guztira	1.045	1.471	%40,8
Praktiketakoak eta Prestakuntzakoak	5.277	4.037	%-23,5

Iturria: SEPE.

Jarduera-sektoreak kontuan hartuta, bai lehen sektorean zein zerbitzuen sektorean sinatutako kontratuek gora egin zuten, nahiz eta aurreko urtearen aldean erritmo mantsoagoan izan (%1,7 eta %0,5, hurrenez hurren). Industrian eta eraikuntzan, ostera, aldakuntzak okerrerako dira (%-3,5 eta %-1,2, hurrenez hurren), 2018ko balio positiboekin alderatuta (%6,7 eta %3,1, hurrenez hurren).

Edozein kasutan ere, zerbitzuek 2019ko lehen seihilekoan jakinarazitako kontratazioaren guztizkoaren %78,9 hartu zuten.

3. KOADROA
EAE. ALDI BATERAKO KONTRATUEN PORTZENTAJE ZKO BANAKETA, IRAUPENAREN
ARABERA

	7 EGUN BAINO GUTXIAGO EDO BERDINA	8 EGUNETIK HILABETE 1era	HILABETE BAINO GEHIAGO, 3 HILABETERA ARTE	3 HILABETE BAINO GEHIAGO, 6 HILABETERA ARTE	6 HILABETE BAINO GEHIAGO, URTEBETERA ARTE	URTEBETE BAINO GEHIAGO	ZEHAZTEKE
2018ko I. Seihilekoa	37,7	11,2	8,0	7,1	2,6	0,7	32,7
2019ko I. Seihilekoa	38,8	11,0	7,9	7,5	2,6	0,3	31,7

Iturria: SEPE.

Jakinarazitako aldi baterako kontratuen iraupenari dagokionez, aurreko aldietan bezala, adierazi behar da zehaztu gabeko iraupena eta zazpi egun baino gutxiagoko edo zazpi eguneko iraupena duten kontratuak guztizkoaren %70,5 direla (sinatutako 10 kontratutatik 7). Astebeteko edo astebetetik beherako iraupena duten kontratuen pisu erlatiboa goraxeago zegoen 2018ko lehen seihilekoarekin alderatuta (ehunekotan, +1,1), eta zehaztu gabeko iraupenekoen pisua, ostera, ehunekotan puntu bat murriztu zen.

3.2- GIZARTE SEGURANTZARAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA

Lehen seihilekoa amaitzean %2,1 hazi zen Gizarte Segurantzarako afiliazio totala, 2019ko ekainean afiliatutako 973.417 pertsonen kopurura (hilabeteko batezbestekoa) iritsi arte. Afiliazio-erregimenen arabera, urte arteko %2,6ko hazkundera izan zuten Erregimen Orokorrerako afiliazioek lehenengo seihilekoan, eta Langile Autonomoen Erregimen Bereziari lotutakoak, ostera, %-0,6 jaitsi ziren.

Gizarte Segurantzarako afiliazio totala, urte arteko terminotan, hilez hil, etengabe ari da hazten lau urte pasatxoan; zehazki, 2014ko maiatzetik aurrera.

14. GRAFIKOA

GIZARTE SEGURANTZARAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA EAE-N (HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA)



Iturria: Gizarte Segurantza.


Hilabete itxierako datuak kontuan hartzen baditugu, kontratu mugagabeekin Erregimen Orokorrera afiliatutakoak⁷ urte arteko terminotan aldi baterako kontratuekin afiliatutakoak baino proportzio handiagoan gehitu ziren (%3,3 eta %1,1, hurrenez hurren).

Nahiz eta, adierazi dugun bezala, lehen seihilekoan sinatutako kontratu mugagabeek behera egin duten, kontratu-mota horrekin afiliatutakoen kopurua zertxobait hazi zen aurreko urtearekin alderatuta, besteak beste, 2018an oro har (batez ere bigarren seihilekoan) kontratu

⁷ Nekazaritzako Sistema Bereziari, Etxeko Langileen Sistema Bereziari eta bestelakoetan (funtzionarioak, zaintzaile ez-profesionalak eta akatsak edo hutsegiteak) afiliatutakoak bazter utzirik.

mugagabeetako afiliazioak izandako hazkundearen ondorioz. Alde horretatik, gogoratu beharra dago afiliatuen kopurua stock aldagaia dela, eta jakinarazitako kontratazioaren bilakaera, berriz, fluxu aldagaia.

15. GRAFIKOA
EAE. ERREGIMEN OROKORREKO AFILIAZIOAREN BANAKETA, KONTRATU-MOTAREN ARABERA (DATUAK SEIHILEKOA IXTEAN)*




(* Nekazaritzako Sistema Berezian, Etxeko Langileen Sistema Berezian eta bestelakoetan (funtzionarioak, zaintzaile ez-profesionalak eta akatsak edo hutsegiteak) afiliatutakoak bazter utzirik.

Gauzak horrela, Erregimen Orokorrera afiliatutako pertsonen banaketari erreparatuta, 2019ko ekainean, aurreko urtearekin alderatuta, gehixeago dira kontratu mugagabearekin afiliatutakoak (%66,1, eta %65,6, ostera, 2018ko ekainean), eta, aitzitik, ehunekotan 0,5 puntu jaitsi da aldi baterako kontratuarekin afiliatutako pertsonen kuota (erregimen orokorrera guztira afiliatutakoen %31,7).

Analisiaren ardatz gisa lanaldi mota hartuta, lanaldi partzialeko kontratua duten afiliatuak, urte arteko terminoetan, %2,9 hazi ziren 2019ko ekainean, eta lanaldi osoko kontratua zutenak, aldiz, %1,7.

Horrenbestez, 2018ko ekainarekin alderatuta, lanaldi osoarekin afiliatutako pertsonak eta guztira Erregimen Orokorrera afiliatutakoak parez pare jarrita, lanaldi osoarekin afiliatutakoen proportzioa hiru hamarren hazi dira, eta %75,7 dira; aldi baterako lanaldiarekin afiliatutakoen kuota, ostera, bi hamarren jaitsi da (guztizkoaren %22,1 dira).


16. GRAFIKOA
EAE. ERREGIMEN OROKORREKO AFILIAZIOAREN BANAKETA, LANALDI MOTAREN
ARABERA (DATUAK SEIHILEKOA IXTEAN)



(*) Nekazaritzako Sistema Berezian, Etxeko Langileen Sistema Berezian eta bestelakoetan (funtzionarioak, zainzaile ez-profesionalak eta akatsak edo hutsegiteak) afiliatutakoak bazter utzirik.

3.3- LANGABEZIA

17. GRAFIKOA
EAE. ENPLEGU BULEGOETAN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA
(HILEKO AZKEN EGUNA)



Iturria: SEPE.


2019ko lehen sei hilekoan urte arteko $-6,9$ jaitsi zen EAEn erregistratutako langabezia urte arteko terminotan (sei hilabeteetako batezbestekoa). Sexuen arabera, urte arteko terminotan, gizonen artean erregistratutako langabezia gehiago murriztu zen emakumezkoena baino ($-8,4$ eta $-7,0$ hurrenez hurren).

Ekaina amaitzean, 111.343 langabe zeuden izena emanda enplegu-bulegoetan (64.509 emakume eta 46.834 gizon), eta 2009ko urtarrilera arte jo behar dugu atzera (110.093 pertsona langabezian) 2019ko ekainak baino langabeziako erregistro txikiagoak dituen beste hilabete bat aurkitzeko.

Sektoreen arabera, eraikuntzak izan zuen sei hilekoan jaitsierarik handiena termino erlatibotan ($-15,3$), atzetik lehen sektorea duelarik ($-10,5$), eta tarte handiagora industria ($-7,6$) eta zerbitzuak ($-7,0$). Aldiz, aurretik enplegurik gabe zegoen kolektiboan erregistratutako langabezia $5,4$ murriztu zen.

Bestalde, Eustat-en Biztanleria Jardueraren Arabera Inkestak $9,6$ an kokatzen du EAeko langabezia-tasa 2019ko II. hiruhilekoan, duela urtebete erregistratutakoa baino sei hamarren beherago. Sexuen arabera, emakumezkoen langabezia-tasa lau hamarren jaitsi zen $9,6$ an kokatu arte, eta gizonezkoena, ohikoa denez, beheraxeago zegoen ($8,7$), izan ere, tasa, aurreko urtearekin alderatuta, 8 hamarren txikiagoa zen.

18. GRAFIKOA
EAE. LANGABEZIA TASA (BJA)



Iturria: Eustat

Bada, BJaren arabera, bigarren hiruhilekoan guztira 100.300 langabe zeuden; horietatik 47.800 gizona ziren, eta 52.400 emakumezkoak.

Lanean ari diren biztanleak 5.600 gehiago direnez, eta biztanleria aktiboaren jaitsiera txikia denez (-700 pertsona), 2019ko II. hiruhilekoan 6.300 pertsona gutxiago daude langabezian, aurreko urteko sasoi bereko datuekin alderatuta.